

Alazne Aiestaran Yarza, kazetaria: “Tesiari esker herri aldizkarixen esentziara ailegatu naz”

Leioako Kazetaritza fakultatian, bere doktore-tesia euskaraz defendatu daben lehen ermuarra izan da, Deba Barrenian euskeraz argitaratzen diran 6 herri aldizkariren analisia egiñez. Hiru urteko bururik altxau bako bere lan mardul eta zehatzaren gaiñian zein 783 orrialdeotan garatutakuaren barri emon dosku.

- Zelan ailegatu ziñan doktore-tesi bat prestatzera?

Kazetaritza ikasketak 2000. urtian amaitxu ondoren, hurrengo urtian doktoregua prestatzeko ikastaro batera jua nintzan; bigarren urtian tesi-proiektua aurkeztu bihar zala eta ia-ia konturatu barik tesia prestatzeko bidian jarri nintzan.

- Zeren gaiñian da zure ikerketia?

2000-2004 urtien bitxartian Deba Barreneneko euskarazko 6 herri aldizkarik euren orrialdixetan erabillitxako kazetaritza-genero eta gaien trataera analizatu dot.

- Ze herri aldizkari?

Ermua eta Mallabian kaleratzen dan Drogetenitxurri hillabetekarixa, Eibar-ko ...eta kitto! astekarixa, Soroluzeko Pil-pilean hamabostekarixa, Elgoibarko Barren astekarixa, Debako Berriketan hillabetekarixa eta Mutrikuko Kalaputxi

hillabetekarixa.

- Zer dira kazetaritza-generuak?

Erabillitxako komunikaziño modua. Informaziñua emoteko albistiak, albiste laburrak, fotonotiziak, kronikak, erreportajia eta elkarrizketak erabiltzen dira. Iritziak argitaratzeko editorialak, kaleko inkestak, iritzi artikulua, iritzi zutabiak, zine zein musika kritikak... Literatura eta komikia be beste genero bat dira, zerbitzuekin batera.

- Ze gairen gaiñian idazten da Deba Barrenian?

Gizarte gaiak aniztasun haundixa dake: gizarte arazo, etxebizitza, garraioak, herritarren eguneroko bizitza, euren azturak. Kulturaren ataliam musika, dantza, antzerki, eskultura edota pintura dakaguz. Kirolia, danok ezagutzen doguzen kirolak, futboletik hasi eta body-board diziplinara arte. Azkenik, politika eta ekonomiari be, txikixa



bada be, tartia eitxen jakue.

- Hasieran, zer kostau jatsun gehixen?

Programa bat diseñatzia, zelan ein, ze epetan... Lau urteko lan programa definitzia gatxa da; gutxi gora behera



KIROL MEDIKUNTZA

Indartu



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*

943172665



ERMUA

Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

bete dot, pentsautako moduan ein dot eta. Nire asmua zan 2007an tesia defendatzia eta halan izan da.

- Ze perfil eskatzen da tesi egille batendako?

Autodiziplina mailla haundi bat; perfil konkretu bat ez da bihar, interesa dakan edozeinekin ein leike. Interesa bai, gozatzia be bai, baiña oso gatxa da egunero-egunero entusiasmo bera eukitzia. Ni lauzpabost bidar egon naz dana lagatzekotan. Norberak ein bihar dabena da; zuzendari bat dakazu, nire kasuan Jose Inazio Basterretxea Polo, eta eskertu bihar dotsat beti albuari egon dalako laguntzeko prest. Norbera oso konbentziturata egotia eta autodiziplina. Autodiziplina diñot ixa-ixa egunero; oso gutxi izan dira honek 3 urtitan zeozer ein barik emon ditudan egunak.

- Egunero-egunero esan dozu...

Bai, salbuespen batzuk kenduta (egun batzuk kanpora edo oporretan juan nazenian) gainontzekua tesiari 4-5 ordu eguneko dedikatzen emon dot. Ez da bakarrik ordenaigailu gaineko lana; asko irakurri bihar da, gainaren gainian argitarautako artikulua, albistiak, liburuak, txostenak...

- Pertsonal mailan, zer erakutsi dotsu?

Alde batetik, nere buruan konfixantza gehixao izaten. Bestetik, zeozer ereitxen dozuan, azkenian fruituak jasotzen dozuzan konstataziñua. Ein dot lana, ein dot lan pillo bat, baiña gero errekonpentsa edarra jaso dot. Bizi garen gizartian gero eta gitxiago baloratzen da esfortsua; dana da bizkorra, ein zeozer eta bizkor, arrakas-ta be lehenbailehen...

- Profesionalki, zer erakutsi dotsu?

Beste era batera ikusten herri aldizkarixak eta batez be Drogeteniturrri, 2000. urtetik gaur egun arte koordinatzaile lanetan nabillen hau: gaizki eta ondo eitxen dogunaren kontziente izaten lagundu dosta, aldizkarixen esentziara ailegautaz eta gehixen bat guriarena.

- Zer frogau dau zure tesiak?

Herri bakotxian kaleratzen dan aldizkari bakotxak bere ezaugarri propixuak ditzula, baiña badirala guztiak komunian ditzuzten ezaugarri batzuk: esate baterako, kazetaritza-generoei dagokixonez, danetan albiste laburrak nagusitzen dira.

Sei aldizkarixetan frogau da informaziñua dala nagusi; honen atzetik zerbitzu gunia doia eta hirugarren iritzi atala juango litzake. Literatura eta komikia askoz gitxiago agertzen dira. Gaitegian be ikusten da gizarte gaiak dirala nagusi eta horrek erakusten dau herritarrak eta haren egunerokotasuna dala aldizkarion ardatz, herritarrak protagonista bilakatu zeresana eurak dakatelako. Kultura gaiak gizarte gaien ondoren doiaz eta kirolena hirugarren blokerik garrantzitsue-na da ixa aldizkari guztixetan. Bestalde, badirala aurrerantzian hobetu biharrekuak, profesionaltasunaren alorrian.

- Tribunalkidiak, zer goraipatu zotsuen?

Erabillitxako aparatu metodologi-kua eta batez be lagiña, muestra. Ikerketa baten emaitzak extrapolatzeko hartzen dan muestrak balixo haundixa daka gero etarako diran emaitzen fidagarritxasunian eta horretan ahalegin berezixa ein neban. 2000-2004 bitxartian, Deba Barreneko publikaziño guztixen artian 566 erre-bista kaleratu ziran; nik 318 aldizkarik osatzen daben lagiña hartu neban eta 12.226 item edo testu kodifikatu nitxuan. Hori izan zan goraipatu ebena, eindako lan izugarrixa.


- Ze nota jarri zotsuen?

Bikain Cum Laude. Uste dot baiña nahiko normala izaten dala, ez dira tesi asko defendatzen eta.

- Zer sentidu zenduan?

Momentu horretan sentsaziño desberdiñak batzen dira. Izugarrizko poztasuna, kabitu eziñezko poztasuna. Pentsatzen dozu "Ein dot lana, baiña ez dot loterixarik bihar, tokau jata eta". Satisfakziñua, izugarrixa da zalantza barik.

Estibalitz González



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41

KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA